



ERAIKI DEZAGUN TRABARIK GABEKO MUNDUA

Ararteko erakundearen helburuen artean gizartea pertsonarik behartsuenen beharrez gero eta gehiago jabetzen laguntzea dago, herritarrak giza eskubideen defentsan eta babesean modu aktiboagoan esku har dezaten. Horregatik, bere web orrialdean (www.ararteko.net) ezgaitasunarekin lotutako gaiari buruzko berariazko atala jarri du abian. Ekimen hau gure erakundeak **2003an, Ezgaituen Europako Urtean**, egin dituen jarduera desberdinei gehitzen zaie; izan ere, besteak beste, ezohiko bi txosten argitaratu, gaiari buruzko jardunaldietan parte hartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen aurrean hainbat jarduera ofizioz abiarazi ditu, hori guztia ezgaituen eskubideak bermatzeko eta haien bizitza kalitatea hobetzeko. Kolektibo horren eskubideek lehentasunezko tokia izan dute beti gure erakundearen jardueran, beren eskubideez baliatzeko mota guztietako oztipoak izaten dituzten pertsonak direlako. Jarduera desberdinen bitartez, beraz, Ararteko erakundeak haien bizitza baldintzak eta gizarteratzeko aukerak hobetzea sustatzen du, baztertu eta bereiz ez ditzaten duten eskubidea izatez eta egitez egia bihur dadin.



Mertxe Agúndez Juan M. Atutxa Legebiltzarreko Lehendakariarekin



ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN

- 2003an 3.548 kontsultari erantzun diegu, guregana telefonoz zein bulegoetara bertaratu jo dutenen pertsonenak..
- Bulegoetan hartu ditugun bisitak, guztira, 2.289 izan dira eta horietatik % 30 kexa bihurtu dira.
- Azpimarratu behar dugu Internet herritarrek kexak aurkezteko duten bide gisa finkatu dela. Izan ere, kexen % 20,33 erakundearen web orrialdearen bidez heldu zaizkigu (www.ararteko.net).
- Kexei dagokienez, nabarmendu behar dugu Arartekoari guztira 1.377 erreklamazio egin dizkiotela. Batzuk, bestalde, hamarnaka sinaduren babesaz heldu dira eta % 13,36 kolektiboren batek aurkeztu ditu.

- Urtean zehar, gainera, ofizioz 116 espediente abiarazi dira, aurreko urtean baino % 27,4 gehiago.
- Tramitatutako kexen % 44,51 udalen aurkakoak izan dira, % 35,98 Eusko Jaurlaritzaren jardueren aurkakoak eta % 14,64 foru administrazioen aurkakoak.
- Arartekoaren esku-hartzeari oso ondo edo nahiko ondo irizten diote galdera sortari erantzun diotenen (% 83,74).
- Aztertu ondoren irregulartasunen bat zegoela iritzia zaien kexetatik % 93,lean, eragindako administrazioak jarduera arteztu eta zuzendu du.

KEXAGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGINDUTEN BALORAZIOA

ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU-HARTZEA ZENBATERAINO IZAN DEN ERAGINKORRA



DATU OROKORRAK

2003an 3.548 kontsultari erantzun diegu Ararteko erakundearen arreta zuzeneko hiru bulegoetan. Guztira, 2.289 bisita izan ditugu, eta Donostiako bulegoan izandako gorakada nabarmendu behar dugu. Bisita horietatik 691 kexa bihurtu dira, % 30, hain zuzen. Horrek agerian uzten du arreta zuzeneko bulegoetan aurretiaz egin den lanaren maila, Arartekoak bategatik zein besteagatik ikertzerik izango ez duen erreklamazioak ezesten baitira.

2003an Arartekoari guztira 1.377 kexa egin dizkiote. Bestalde, kontuan izan behar da batzuk hamarnaka sinaduren babesaz heldu direla, eta % 13,36 kolektiboren batek aurkeztu dituela.

Internet herritarrek erreklamazioak jartzeko bide modura finkatzen ari da. Izan ere, kexen % 20,33 erakundearen web orrialdearen bidez heldu zaizkigu (www.ararteko.net).

Urtean zehar, gainera, ofizioz 116 jarduera abiarazi dira, aurreko urtean baino % 27,4 gehiago. Tramitatzen 2003an amaitu diren kexei dagokienaz, aztertutako banakakoen edo taldeen kexetatik % 32,15ean irregulartasunen bat izan dela iritzi diogu. Eragindako administrazioak kexa sortarazi zuen jarduera zuzendu du erreklamazioa aztertu ondoren irregulartasunen bat

izan dela iritzi zaienetatik % 93,1ean. Gainera, kasurik gehienetan (% 91,1), gomendiorik luzatu beharrik gabe egin du hori.

Kexak hizpide zuten gaiari adituz sailkatzen baditugu, 2003an aurreko urtearen aldean erreklamazioen kopuruetan aldaketa batzuk izan direla ohartzen gara. Hartara, Gizarte Ongizatearen arloari buruzko kexak nabarmen gehitu dira, Gasteizko Ariznabarra zahar egoitzako auziaren ondorioz jarritako erreklamazio kopuruarengatik. Hezkuntzaren arloan ere kexak gehitu dira, batxilergoaren arauketa berriaren gaineko hainbat kexa egon direlako.


2003an kexa kopururik handiena jaso duena tokiko Administrazioa izan da, tramitatutako kexetatik % 44,51, zehazki. Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexak % 35,98 dira eta Foru Administrazioaren aurkakoak, berriz, % 14,64. Komeni da ohartaraztea espedienteetan inplikaturako administrazioak aztertzeak ez duela ezinbestean irregulartasunik egin dutenik esan nahi, beren jardueraren batek kexa eragin duela baizik.

Bizkaia da udalen aurkako kexarik gehien jaso duen lurraldea, guztira kexetatik % 51,14; Gipuzkoako udalek % 26,03 eta arabarrek % 18,95 hartu dituzten bitartean.

Kexa egiten duten pertsonak beren borondatez eta izenik eman gabe betetzen duten gal-


dera-sortak adierazten digu Arartekoaren esku hartzea oso ona edo nahiko ona iruditu zaiela, oro har (erantzun dutenen % 83,74ri), baita arazoa konpondu ez zaien edo beren aurka ebatzi denen artean ere. Gainera, ia % 90ek adierazten dute administrazioen batekin arazorik izanez gero, beste pertsona batzuei ere Arartekoarengana jotzeko gomendatuko lieketela.

BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA JARDUERA ALORREN ARABERA




- | | |
|-------------------------------|--|
| 1 Gizarte Ongizatea | 8 Ogasuna |
| 2 Hirigintza eta Etxebizitza | 9 Kultura eta Elebitasuna |
| 3 Herril Lanak eta Zerbitzuak | 10 Ingurumena |
| 4 Herrizaingoa | 11 Justizia |
| 5 Funtzio Publikoa | 12 Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa |
| 6 Osasuna | 13 Lana eta Gizarte Segurantzak |
| 7 Hezkuntza | |

BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA




ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-2003)




- 1 545 kexak kexa berdin-berdinen multzo bat osatzen dute.
- 2 1.143 kexak kexa berdin-berdinen 2 multzo osatzen dituzte.
- 3 62 kexak kexa berdin-berdinen multzo bat osatzen dute.
- 4 264 kexak kexa berdin-berdinen 2 multzo osatzen dituzte.

KEXAGILEAK ETA KEXAK AURKEZTEKO ERA


JASOTAKO KEXEN BANAKETA KEXAGILEEN EZAUGARRIEN ARABERA



JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERABILTAO HIZKUNTZAREN ARABERA



JASOTAKO KEXEN BANAKETA AURKEZTEKO MODUAREN ARABERA



ARARTEKOAK OFIZIOZKO ESPEDIENTE BATI EKIN ZION GASTEIZKO UDALAREN USTEZKO JARDUERA IRREGULAR BAT IKERTZEKO

Arartekoak ofiziozko espediente bat ireki zuen Udalaren jokaera ikertzeko, zenbait hedabidek emandako informazioaren arabera Gasteizko Udalaren gazteentzako etxebizitzabulegoak kudeatzen zituen alokairu-pisu batzuetan ezin zelako etorkinik maizter hartu, jabeek baldintza hori jarri baitzuten beren pisua alokagarri uzteko, eta bulegoak hala onartu. Erakunde hau beti arduratu da Gasteizera iritsitako etorkinek etxebizitza aurkitzeko dituzten arazoez. Horregatik, 2001ean Magrebeko etorkin talde batek etxebizitza bat alokatzeko zituzten zailtasunak azaldu zizkionean, Arartekoak erakunde desberdinetara jo zuen -Gasteizko Udalera, besteak beste- ahal zen neurrian beren eskumenak arazoa konpontzeko erabil zituzten. Hango hartan bagenekien aurkeztutako kexak ez zuela zerikusirik administrazio publikoren batek egindako irregulartasunekin, eta gure esku-hartzearen arrazoi bakarrak gizabidea eta gizarte arazoaren konpondu beharra ziren. Horregatik, eta Gasteizko Udalak arazoa konpontzeko ahaleginak egin behar zituelako ustean, neurri sorta bat eskaini genion orientagarri. Baina 2003an, esan bezala, alarmak jo zuen, izan ere, etxebizitzaren alokairua errazteko asmoz sortutako udal zerbitzu batek atzerritarrek baztertu nahia onartzen omen zuen jabeengandik. Ikerketaren

emaitzak adierazten zuenez, ordea, solairuen poltsa kudeatzen duen fundazioak jo eta ke dihardu horrelako aurreiritziak eta susmo txarrak uxatzeko. Hala eta guztiz ere, uste

dugu Udalak baliabide gehiago bideratu beharko lituzkeela arazoa konpontzeko, eta ez duela inolako bazterkeria zantzurik onartu behar.



El Correoren argazkia

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZEN MURRIZKETA GASTEIZEN

Gizarte larrialdietarako laguntzak jasotzen dituzten zenbait herritarrek kexa aurkeztu dute Arartekoaren aurrean, Gasteizko Udalak, laguntzaren bidez ematen duen diru kopurua murrizteaz gain, laguntza lortzeko mugak ezarri dizkielako 2003ko urriaren 31z geroztik eskatu dutenei. Neurria arazoitzeko, Udalak adierazi du ez zegoela behar beste diru eskaera guztiei ordura arte egiten zen bezala erantzuteko. Gizarte Premietarako Laguntza Gizarte Bazterketaren aurkako Legeak arautzen

dituen prestazioetako bat da, eta EAEko Aurrekontu Orokorretan aurreikusten diren baliabideak ezinbestekoak dira udalek onartu eta gauzatuko dituzten laguntzei begira, beraz, informazioa eskatu genien Eusko Jaurlaritzari eta Gasteizko Udalari, eta geroago Arabako Foru Aldundiari ere bai, azken horrek iragarria baitzuen berriro hasiko zela laguntza horietarako baliabideak ematen, ordura arte egin izan zuen bezala. Aurrekoaz gain, beste ofiziozko espediente bat abiarazi dugu, jakin nahi baitugu nolako

arazoak izan litzaketen pertsona askok 2004an GPLak berriro eskatuko balituzte Gasteizen, gerta litekeelako zailtasunak izatea lehenago ere hango egoiliarrek izan zirela frogatzeko eta erroldaturik egondako denbora tarte egiaztatzerako. Izan ere, laguntza murriztean, pertsona askok bere etxebizitza utzi behar izan zuten, ezin baitzuten ordaindu, eta horren ondorioz ere, bajatzat agertu ziren erroldan, egoitzarik ez zutelako, hain zuzen.

BAIMENIK GABEKO SALTOKI IBILTARI BATEKO SALGAIK ATZEMATEAN EZ ZIREN LEGEZ EZARRITAKO BERMEAK BETE

Gipuzkoako SOS Arrazakeria elkarteak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, Donostiako Udaltzaingoak baimenik gabe salmenta ibiltarian ari ziren bi pertsonen atzemandako arropak itzul zitzaizkien; horretaz gain, erantzun argi bat jaso nahi zuen Udaltzaingotik, atzemandako salgaiak berreskuratzeko egin behar ziren izapideen berri lortu nahian elkarteak eskaera bat ezarria baitzuen udal poliziaren Erregistroan. Elkarteak kexu zen, halaber, komisario nagusiak ez zuelako bete

Mugikortasun eta Herri Bideetako zinegotzi eskuordeak helarazitako erabakia, hartutako janzkiak itzultzeko agintzen zuena. Kasuaren nondik norakoak aztertuz, Arartekoak uste du ez zirela bete legearen arabera salgaiak kautelaz atzemandean begiratu behar ziren bermeak, eta beraz, atzemandak ondorioz gabe utzi behar zela. Jakin genuenez, bestalde, Udalak isuna ezarri zien bi saltzaile ibiltariari. Hori kontuan hartuz eta 1998an egindako gomendio orokorra gogoraraziz (Poliziaren

esku-hartzea baimenik gabeko salmenta kasuetan), gomendio bat luzatu genion Donostiako Udalari, atzemandako salgaiak bueltatu, saltzaileen aurkako zehapena bertan behera utzi, eta elkarte kexagileak Udaltzaingoaren Erregistroan aurkeztutako eskaerari erantzun ziezaien. Txosten hau bukatu beharrean dagoelarik, ez dakigu Udalak gomendioa onartu duen.

DIRUZKO KALTE-ORDAINAK FRANKISMOAN ASKATASUNAZ GABETUTA EGON ZIREN PERTSONENTZAT

Frankismoan askatasunaz gabetuta egon zirenei diruzko kalte-ordainak aitortzen dizkien dekretuaren ondorioz zenbait kexa aurkeztu dizkiote Arartekoari. Kexak aurkezteko arrazoiak bi motatakoak izan dira: erreklamazioetan azaltzen denez, oso zaila da diktaduran presoentzako eremuetan egonaren frogak edo agiriak aurkitzea, eta bestalde, ezbaian jartzen da laguntzak jasotzeko ezarri den 65 urteko adin mugak. Laguntzaren sustatzailea den Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak azaldu duenaren arabera, eskaerei 2004ko lehen hiruhilekoan emango zaie erabakia; prest agertu da, halaber, artxibo militarrek arakutzen

jarraitzeko, nahiz eta, horren ondorioz, eskatzailearen espetxeratzea agian dekretuaren epea agortutakoan egiaztatuko den. En estos casos, el Sailak adierazi duenez, hala gertatuko balitz, tresnak baliatuko lituzke pertsona horiek kalte-ordainak jasotzeko. Bide beretik, dekretuaren tramitazioa bukatu ondoren, sail horrek adin-mugarik ezartzen ez lukeen araudi bat aztertzeko asmoa du, betiere horretarako erabilgarri duen aurrekontua kontuan hartuz. Gure aldetik, aurreko guztia baloratu dugu, eta oraingoak baino helburu zabalagoak lituzkeen dekretu bat emateko iradokizuna luzatu diogu sail horri,

askatasunaren alde borrokatzeagatik errepresioa eta espetxeratzea jasan zutenek eta beren senideek ordaina jasotzeko ahal izan dezaten, hain zuzen. Hala, bada, espero dugu Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak arazo horri buruz egin diogun iradokizuna kontuan har dezaten, eta bere aurreikuspenek behar besteko diru kopurua izan dezaten erabilgarri aurrekontuetan.

DIABETESA DUTEN IKASLEEN ZAINTZA

Arartekoari iritsitako kexa batek zioenez, diabetesak jota eta eskola-adinean dauden haurren kasuan ez zegoen jarraibide multzo zehatzik, artapena arin eta segurua ziurtatuko zienik, haur horiek oraindik beren burua zaintzeko gai ez diren arren. Lehenagoko kexen ondorioz, bagenekien Hezkuntza Sailak bere gain hartua zuela ikasle horien beharrei erantzuteko ardura, eta erabakitzeke zegoela horrelako kasuetan jarraitu beharreko ereduak, zehatzago, nori

zegokion, hezkuntza eremuan, berehalako laguntza zuzena emateko ardura. Arartekoak adierazi zuen, horrenbestez, administrazioak argitu behar zuela puntu hori, beti kontuan hartuz azken buruan erantzukizuna Sailari dagokiola. Emandako erantzunean, Sailak bere egiten zuten diabetesa duten haurren zaintza, eta berehalako zainketa zuzena irakasle-tutorearen esku uzten zuten. Horretaz gain, Osasun Sailarekin elkarlanean aritzeko aukera aztertzen zuten,

erabil daitezkeen artapen-jarraibideak argitzeke eta eskola eremuan behar diren osasun-zainketak ere zehazteke. Auzia bideraturik zegoela ikusirik, gure lana bukatutzat utzi genuen. Baina geroago jakin dugu, hedabideen bitartez, familia batzuek arazoak dituztela, oraindik ere, diabetesa duten haurrak eskolatzeke, eta berriro ekin diogu ofiziozko esku-hartzeari.

GIPUZKOAKO LURRALDEAN EMANDAKO EHIZA-BAIMENEK LEGEZKOTASUN PRINTZIPIOA URRATZEN ZUTEN

Bizkaiko ehiztari talde batek gugana jo zuen, Gipuzkoan ehiza aldia hastear egon arren, Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Sailak ez baitzion erantzunik eman ehiztari horiek basurdetarako egin zuten baimen-eskaerari. Taldeak adierazten zuen, era berean, sailak lehenago ere utzi zituela erantzunik gabe antzerako eskaerak. Izan ere, kexaren haritik Nekazaritza eta Ingurumen Sailak igorritako informazioan ikusten zenez, sail hori isilaz baliatu zen kexagileen taldeak egindako beste eskaera batzuei ere erantzuteko. Gainera, ezetza eman zien batean, erakundea ez zen inolako arautan oinarritu horrela jokatzeko. Hortaz, eta kontuan harturik kexan aipatutako ehiza aldia bukatuta zegoela, gomendio bat helarazi genion Nekazaritza eta Ingurumen Sailari, erabakiak ehiza-

denboraldiak hasi aurretik hartu eta jakinaraz zitzan, bai ehizarako baimen-eskaerei erantzutean eta bai ezezko erantzunen aurkako helegiteez erabakitzean ere. Gomendatu genuen, era berean, ehizarako eskubideari ezartzen zaizkien mugak zein prozedurazko xedapenak arauen arabera izan daitezen. Gomendio horiek onartu ziren arren, ez ziren bete ondorengo ehiza aldian. Izan ere, denboraldia hastekoa zela, berriro ukatu zitzairen baimen eskaera kexagileei, eta horren aurka aurkeztu zuten helegiteak ere ez zuten erantzunik jaso. Sailari bidali genion balorazioan azaldu genuenez, bere jokaera berraztertzen ez bazuen, lehen egindako bi gomendioak bete gabetzat joko genituen.



El Correoren argazkia

BILBOKO UDALAK OFIZIOZ EMANGO DITU BANKUAZ HELBIDERATUTAKO ERROLDAKO ORDAINAGIRIEN FROGAGIRIAK

Bilboko auzokide batek kexa bat helarazi zion Arartekoari, Udalak banku bidezko errolda ordainagiriekin darabilen sistema dela eta. Kexagileak zioenez, behin zordunketa eginda, helbideratutako errolda-ordainagiri guztien sarrera bankuak bidaltzen zuten agiri batean ageri zen, baina ez ziren banan-banan zehatzen zerga-kontzeptuak. Ondorioz, zerga jakin bat (OHZ, estolderia-tasa, JEZ, TAOnen txartela...) ordaindu izanaren frogagiria eskuratzeko, zergadunak berariazko telefono zenbaki batera deituta eskatu behar zuten. Kexa jarri zuenaren ustez, bide hori ez zen zuzena, eta Udalak zerga bakoitzaren frogagiri osoa helarazi beharko luke, zergadunak eskatu gabe. Gainera, deia bera ere karga bat zen zergadunarentzat, zenbakia ez zelako doakoa eta ez zelako frogaturik geratzen eskaera eginda zegoela. Bilboko Udalarari informazioa eskatuta, azalpen zehatzak eman zizkigun darabilen sistemaren inguruan, eta azaldu zuten, halaber, ez ziela zerga-kontzeptuen inguruko daturik ematen bankuei isilpeko informazioa delako. Era berean, ez dago ordainagiri horiei uko egiterik, beraz, Udalaren iritziz, bankura bidaltzen duen agiria ordainketa-frogagiritzat har daiteke. Informazio guztia aztertutik, eta Bizkaia Lurralde Historikoko Zerga Bilketari buruzko Erregelamenduan ezarritakoa kontuan harturik, Arartekoak gomendio bat helarazi dio Udalarari, banku bidez kobratzen diren zergen ordainketa-frogagiriak ofizioz eman ditzan. Gomendioa onartu egin da.

ERTZAINZAK INSTITUTU BATEAN JARDUN ZUEN ZENTROKO ZUZENDARIAK EZER JAKIN GABE

Arartekoari aurkeztutako erreklamazioan, Bigarren Hezkuntzako institutu bateko zuzendaria kexu ageri zen bi ertzain institutuaren esparruan sartu zirelako bere baimenik gabe eta Hezkuntza Sailak ez zuelako ezer egin gertatutakoaren aurrean. Interesatuak gertakarietan esku hartu zuen, zuzendaria zelako, eta kexan azaltzen zuenez, horren ondorioz Herrizaingo Sailak zehatze prozedura bat ireki zuen bere kontra, geroago ikastetxearen inguruetan iragarri gabe egindako manifestazio baten ustezko arduraduna izatea leporatuta. Arartekoak Hezkuntza Sailera jo zuen, eta bertan jakin zuenez, sail horrek ez zien erantzun formalik eman kexagileak aurkeztutako idazkiei, bai

ordea, nolabaiteko aholku juridikoak eman zehatze prozeduraren inguruan. Bildutako agiriei esker igartzen zenaren arabera, ertzainak institutuko patioan sartu ziren, eta interesatuak bera zentroko zuzendaria zela adierazi zien arren, ez zioten kasurik egin, eta bere baimenik gabe galdezka hasi zitzaizkien hango ikasle batzuei. Gure ustez, bada, ertzainek gainditu egin zituzten Herritarren Seguratasuna Babesteko Legean ezarritako mugak, eta kexagileak, bestalde, zentroko zuzendariari dagozkion eginkizunak bete baino ez zuen egin; horrenbestez, alde horretatik ez zegoen inolako arrazoirik Herrizaingo Sailak zehatze prozedurarik ireki ziezaion. Bestalde, Hezkuntza Sailak jakinarazi zigun interesatuari

eskatua zuen espedientearen kopia ez ezik, haren defentsarako burututako jardunen berri ere eman ziola. Herrizaingo Sailaren erantzunean, ordea, zehatze prozedura bakarrik aipatzen zen, baina ez zen ezer esaten ertzainak zentroan sartzeaz edo zuzendariari emandako tratua. Beraz, berriro jo genuen Herrizaingo Sailera, puntu horien inguruko informazioa ere lortu nahian, baina txosten hau bukatzeaz daukagula, ez dugu haren informaziorik jaso.

ZABOR BILKETARAKO KAMIOIAK GAUEZ ATERATZEN DUEN ZARATA

Bilboko auzokide bat kexu zegoen zabor biltzeko kamioiak etxean eragiten zizkon eragozpenegatik. Bera bizi den kalean bilketa zerbitzua goizaldeko ordu bat eta ordu biak bitartean egiten zenez, zaratak ia egunero iratzartzen zuen bi urteko alabatxoa, eta nekez lokartzen zen berriro. Guk hala eskatuta, Udaleko Ingurumen Sailak neurketa bat egin zuen, zaborra biltzean Bilboko Ingurumena Zaintzeko Ordenantzako zarata maila gainditzen zen jakiteko. Emaitzak adierazi zuenaren arabera, gainditu egiten ziren erregelamenduan ezarritako mugak, beraz, alde horretako bilketa-orduak aldatzea erabaki zen. Interesatua ados zegoen proposatutako aldaketarekin, eta horrenbestez, gure lana bertan amaitutzat jo genuen.



El Correoaren argazkia

HAUR ETA IKASLEENTZAKO GARRAIOETAN NAHITAEZKOA DA BIDAIA-ZAINDARIAK EGOTEA

Ikasturte hasieran, herritar batek kexa bat aurkeztu zuen Arabako errepide tarte batean (Abornikanotik Izarraraino) egiten zen eskola-garraioan ez zelako zaindaririk joaten; gainera, dirudienez urtero gauza bera gertatu ohi da garai berean eta zenbait ibilbidetan. Hezkuntza Sailari informazioa eskaturik, azaldu zigun hutsaren berri izan orduko konpondu egin zuela, enpresa esleipendunari zerbitzua behar den moduan eman zezala eskatuz. Kexagilea, haatik, kezkatu zegoen, hurrengo urteetan arazo bera gertatuko zen beldur, eta ulertzekoa zen, bidaia luze horiek bigarren mailako errepideetan zehar egiten direlako, eta erabiltzaileak urte gutxiko haurrek direlako. Alde horretatik, ikasle eta haurren garraio-segurtasunari buruzko legeak nahitaezkoztat jotzen du zaindaria egotea, eta hala gertatu ezean, zerbitzua etenda uzteko aukera aurreikusten du. Bestalde, zerbitzua behar bezala ematearen ardura hezkuntza Administrazioari dagokio, baita

zeharka kudeatzen denean ere, enpresa baten bitartez, alegia. Hortaz, egoki iruditu zitzaigun sail horri betebeharrak gogoraraztea, prebentzio

eta kontrol neurri zehatzak eta eraginkorrak har ditzan eta aurrerantzean horrelako arazorik berriro gerta ez dadin.



El Correoaren argazkia

ZIGOR EPAI BATEAN KONDENATUAREN NORTASUNA OKER EGIAZTATU ZELA-ETA, BESTE HERRITAR BATEN LOKALA BAHITU ZUTEN

Herritar batek Arartekoarengana jo zuen, Burgosko Zigor Epaitegiaren akats batek eragin zizkion kalteak salatzeko. Izan ere, organo horrek bere finka bat bahitzeko agindua eman zuen, izen-abizen berberak zituen beste pertsona baten aurkako epaia betearaztean. Kexagilearen iritziz, bestelako daturik eskatuz gero -NANA, kasu- ez zen horrelakorik gertatuko. Auzian autonomia erkidego desberdinetako bi epaitegik esku hartu zuten, aurkeztutako kexa Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusira (AJKN) helarazi genuen, behar ziren neurriak har zituzan. Handik erantzun zenez, epaia betearazi zenean kondenatuak kaudimengabe aitortu zuen bere burua, eta horregatik haren izenean zeuden ondasun higiezin frogagiria eskatu zioten Jabetzaren Erregistrozaineen Elkargo Nazionalari.

Eskabidean, besteak beste, kondenatuaren izena, NANA, jaiotze lekua eta data eta azken helbidea ageri ziren. Erregistroak adierazi zuen bazeudela Bizkaian zenbait ondasun zigordunaren izenean, eta beraz, Epaitegiak finka bat bahitzeko agindu zuen, emazte eta finkaren jabekide ageri zenari ere erabakiaren berri emanez. Kexagilea Gau eta eguneko Epaitegira bertaratu zen, izen-abizen berberak izan arren kondenatua beste bat zela argitzearen. Hala zela frogatu zenean, bahimendua baliogabetu egin zen, baina AJKNk adierazi zuen Epaitegiak ez zuela arduragabe jokatu, eta akatsa Jabetzaren Erregistroan gertatu omen zenez, espedientea artxibatuta gera zedin proposatu zuen. Guri egoki iruditu zitzaigun Erregistroari AJKNren iritzia berri ematea, aurrerantzean antzekorik gerta ez zedin,

baina erregistrozainek erantzun zuen NAN zenbakia derrigor agertu beharrezkotzat jotzen duen araua geroago hasi zela indarrean, eta horregatik ez zela datu hori jaso. Hala ere, Erregistroak bahitutakoaren emaztearen izena jakinarazi zion Epaitegiari, eta datu hori NAN zenbakia baino argigarriagoa zen, ordura arteko datuen arabera ez baizen gertatu bi senar-emazte izen-abizen berberak edukitzea. Hortaz, bada, erregistrozainek ez zuen onartzen AJKNk egotzi zion erantzukizuna. Geuk ere uste dugu beste datu batzuk erabiliz gero ez zela horrelako hutsik gertatuko, baina iruditzen zaigu, era berean, prozeduran parte hartu zuten bi organoek bazutela erabilitako datuak egiaztatzerik.

BONO-TAXIA: ADIN MUGA ETA MUGIKORTASUN ARAZOAK

Gasteizen bizi den herritar bati bono-taxi izeneko garraiobide-laguntza kendu zioten 70 urte bete zituenean, nahiz eta mugikortasun arazoengatik ezin zuen garraiobide publikorik erabili. Araban

bono-taxia Aldundiaren programa baten ekimena bada ere, kudeaketa Udalaren esku dago. Gasteizen, bono-taxia eskuratzeko baldintzetako bat 65 urtetik gorakoa ez izatea da, baina muga hori 70

urtekora igo daiteke eskatzaileak gurgil-aulkia erabiltzen badu edo ibili ahal izateko makilez baliatu beharra badu ezinbestean, eta horixe zen, hain zuzen ere, Arartekoarengana jo zuen pertsonaren egoera. Ohartu ginen udalaren erabakiaren atzean zegoen irizpide orokorrak herritar asko uzten zituela laguntza hori gabe, eta mugitzeko arazo larriak izan arren ez ziela beste aukerarik ematen. Bestalde, Aldundiak Arabako beste udal batzuekin sinatutako hitzarmenetan ez zen adin-mugarik jasotzen baldintza gisa. Aldundiari galdeturik, bi erregelamendu mota zeudela erantzun zigun: haietako bat hiri izaera nagusia duten udalentsakoa, eta bestea, ordea, garraiobide publiko gutxiago duten landa aldeko udalei zuzendua. Adierazi zitzaigun, halaber, Aldundiak programa egokitzeko asmoa zuela, ahalik eta udal gehienetara zabaltzeko eta, adin mugaren baldintza ezabaturik, laguntzen tamaina eskatzailearen mugikortasun arazoaren eta errenta mailaren arabera zehazteko. Proposamen horiek egoki iruditu zitzaizkigula-eta, erantzunean egokitzapena lehenbailehen egitea gomendatu genuen.



El Correoren argazkia

AZOKETAN URDAI-GAIEN SALMENTAK BALDINTZA EGOKIAK BETE BEHAR DITU

Gaiarekin zerikusia duten udaletara eta Osasun Sailera jo ondoren, elkarte batek bere kexa azaldu zion Arartekoari. Elkarte horrek salatzen zuenez, urdai-gaiak azoketan saltzeko moduak apurtu egiten zuten “hotzaren katea” delakoa, jaki horietan behar-beharrezkoa dena, hain zuzen. Horrelakoen salmenta-

kontrola eta zaintza udalen eskumena den arren, gure iritziz bazegoen kexa hori Osasun Sailera eramateko arrazoirik. Guk ere uste genuen udalei jakinarazi behar zitzaizela nolako baldintzak bete behar ziren hotzaren katepeko jakien salmenta ibiltarian, eta beraz, EUDELen laguntzaz jakinarazte-lan hori bete zezan gomendatu

genion sailari. EUDELangana ere jo genuen informazio eske, jakin nahi baikenuen zer egingo zuen bere kideek neurriak har zitzaizaten eta salatutakoa bezalakorik berriro gerta ez zedin.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO ARAUETAN JASOTAKO KONTROL NEURRIAK ERABILI BEHARRA

Europako ezgaituen urtea zela eta, Arartekoak txosten bat aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean: Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publiko duten eraikinen irisgarritasuna. Txosten horretako azterketaren bitartez hausnarketa eta eztabaida bultzatu nahi izan ditugu, ezinduen aukeraberdintasunerako behar diren neurrien gainean. Txostenean ageri diren ondorio adierazgarrietako batek erakusten duenez, herri-administrazioek oso gutxitan erabiltzen dituzte irisgarritasunari buruzko araudietan jasotako kontrol tresnak, arauok zenbateraino

betetzen diren neurtzeko ezarriak, hain zuzen. Datu horrek bat egiten du, gainera, irisgarritasunari buruzko arauak behar bezala betetzen ez direla salatzen duten kexa ugarirekin. Ildo beretik doaz norbanakoek eta elkarteek aurkeztutako kexak: ezinduentzat gordetako aparkalekuak maiz mugikortasun arazorik ez duten herritarrek erabiltzea; igogailua ez dabilelako ezin iritsizko gertatzen zaizkien aparkalekuak; komun egokiturik ez duten hotelak eta jatetxeak; babes ofizialeko erreserbako etxebizitza iritsi ezinak; ireki berriak izan arren irisgarritasun baldintzak

betetzen ez dituzten saltokiak... Hartara, ondorioztatutako datuek adierazten dute herri-administrazioek ez dutela betetzen irisgarritasunari buruzko arauetan aurreikusitakoa, eta Arartekoaren ustez, ingurune fisikorako irispideak eta komunikazioa erraztu nahi badira -bereziki arazoak dituzten pertsonen kasuan- beharrezkoa da indarrean dauden irisgarritasun-arauak benetan betearaztea. Batez ere udalek egin behar dituzte ahalegin handienak, ikuskaritza zerbitzuak indartzuz, partikularren jarduerak behar bezala kontrolatuz eta ikuskatuz, eta legezketasuna berrezartzeko eta arau-hausteak zehatzeko tresnak irmo aplikatuz, irisgarritasuna bultzatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean jasotakoaren arabera. Azkenik, tokiko agintariei ohartarazi egin behar zaie arauak zer agintzen dien: aurreikusten den salbuespeneko prozedura ezarritz udal lizentzia ematen duten aldi guztietan, horren berri eman behar diote Euskadiko Irisgarritasuna Sustatzeko Kontseiluari.



El Correoren argazkia

URBANIZAZIO PRIBATUEN MANTENTZE-LANA ERABILERA PUBLIKORAKO ZORRA DAGOEN KASUETAN

Gure hiri-herrietako urbanizazio askok, pribatuak izan arren, interes publikoaren zerbitzuan daude, atsedan-leku, gune ireki edo gune bereizien arteko pasabide gisa ere erabiltzen baitira. Horrelakoetan, arazoak sortu ohi dira urbanizazioaren mantentze gastuak edo erabilera publikoak eragindako kalteak noren lepotik ordaindu behar diren erabakitzean. Gorabehera horiek desadostasunak ekartzen dituzte maiz administrazio publikoen eta auzokideen elkarrean. Izan ere, ondasun pribatu baten gainean erabilera publikorako zor bat eratzen denean, edo bide zein egonaldi zorra arautzeko klausulak interpretatzerakoan, ez da argi geratzen nolako beharrak eratortzen diren udalarentzat, eta hortxe datza arazoaren muina. Azaldutako kasuak aztertutik,

Arartekoak uste du udalek arautu egin behar dituztela erabilera publikoko zorrek dakartzaten mantentze ardurak. Zehazki, udalei zoladura eta hiri-altzariak garbitzea dagokie, ez ordea, fatxada, paramentu eta sabaien garbiketa. Helburu hori gogoan, beharrezkoa da gune horietarako gutxieneko garbiketa-baldintzak zehaztea, udalaren garbiketa zerbitzuen ohiko jardueran oinarrituz. Udalak bere gain hartu behar ditu pasabideetan ikusgarritasun egokia ziurtatuko duten zerbitzuak (farolak eta ataripeetako argi-puntuak) ezartzea eta mantentzea, hala nola hondatutako hiri-altzariak (bankuak, zakarrontziak...) aldatzea. Halaber, lorategirik badago, era egokian mantenduko ditu, udalerrri osoan erabiltzen diren neurrien eta ereduaren arabera. Hondatuta egoteagatik

oinezkoei pasabideetatik eroso ibiltzea eragozten dieten egiturazko elementuak ere konponduko ditu, baita segurtasunerako elementu laguntzaileak (eskudelak) mantenduko ere. Jabeen elkarrean dagokienez, eraikineko egiturazko elementuak zaintzeaz gain, saneamendurako sareak eta euri-uretarakoak mantenduko dituzte sare-nagusiarekiko lotuneetara arte, eta kalteturiko elementuak (kutxetak eta hustubideak) aldatuko dituzte. Aurrekoaz gain, jabeek dagokie hormetako graffitiak eta bestelakoak kentzeko ardura, udalak herriko beste lekuetan horretarako dituen lan-ereduak gorabehera.

ZERGEN KUDEAKETA: ORAINGO EREDUETAKO BEREZITASUNAK ARAUTU BEHARRA

Herritarren parte-hartze aktiboa gaur egungo zerga sistemaren oinarrietako bat da, hau da, zorrak ordaintzeaz gain, zergadunak bere egoera ekonomikoagatik dagozkion betebeharrei eta eskubideei eutsi behar die. Halaber, administrazioak luzatzen dizkion errekerimendu ugariei ere erantzun behar die, eta horren ondorioz, herritarren egoera juridikoa iraganekoa baino askoz nahasiago bihurtu da. Esandako parte-hartze aktiboaren ezaugarriak adierazgarrienetako bat kudeaketa-prozeduraren hasieran bertan dago, zergadunak berak ekin behar baitio, bere autolikidazioa aurkeztuz. Hala ere, zerga batzuk gero eta konplexuagoak dira, araudiak ere gero eta gehiago, eta horren ondorioz, zergadunak bere

eginkizunak betetzeko beharko lituzkeen ezaguera tekniko-juridikoak gehiegizkoak dira, batez ere Administrazioak informazio egokirik eskaintzen ez badu. PFEZi dagokionez, EAEko hiru lurralde historikoez nahiko finkatuak daukate zergadunarentzako laguntza-zerbitzuak: Rent@raba, Rentanet eta Errenta mekanizatua. Dena den, sistema horiek oso zabaldurik badaude ere, foru ogasunak ez dituzte araudi osatu batean bildu; beraz, gure iritiz, foru administrazioek behar den aragintzari ekin beharko liokete, alderdi interesatuetako bakoitzaren egoera juridikoa zehaztuz eta legerian jasotako printzipioak eta bermeak ziurtatuz, bereziki onustea eta segurtasun juridikoa, bi printzipio horiek ez

baitute eskuratu, oraindik ere, zor zaien begirunea. Eremu juridiko berrian administrazioak zenbait arau mota sortzeko ahalmena beharko luke. Berandutza-korrituak, haatik, ez lirateke segituan ezarri beharko: egindako arauen mende egongo lirateke, eta deuseztatu ere egingo lirateke administrazio-organo baten akatsak zuzendu beharko balira. Zehapenei dagokionez, gure iritiz zehapen prozedura orotan -baita zerga alorrekoan ere- errugabetasun ustea ezarri beharko litzateke, beraz, administrazioak izango luke errua frogatzeko ardura, eta ez administrazioak bere errugabetasuna argitzekoa.

TRAFIKOAREN, IBILGAILU MOTORDUNEN ETA BIDE SEGURTASUNAREN ALORREAN AURRETIAZ TAXUTUTAKO EREDUAREN BITARTEZ TRAMITATZEN DIREN ZEHATZE PROZEDURAK: ZENBAIT ARAZO DEFENTSARAKO ESKUBIDEAREN INGURUAN

Arartekoak bere kezka agertu nahi du trafikoaren, ibilgailu motordunen eta bide segurtasunaren alorrean tramitatzen diren zehatze prozedurak direla eta, tramitazioa aurretiaz taxututako ereduaren bitartez gauzatzek murriztu egiten baititu interesatuei dagozkien bermeak eta eskubideak. Izan ere, edozein prozeduratan erabiltzeko moduko esamolde orokor eta estereotipatuek baliatzean, bakarrik ziurtatzen da erantzun formal bat interesatuak egiten dituen galdekizunetarako, baina ez dira

bermatzen bestelako eskakizunak, alegia, Konstituzioak aitortzen duen defentsarako eskubidetik datozenak. Arartekoak 2002ko txostenean bertan azaldu zuenez, trafikoaren alorreko zehatze prozedurengatik jaso ziren kexa askoren atzean, tramitazio aldirian erabilitako eredu berdinen arazoa zetzan. Aurtengoan ere antzeko kexak aurkeztu dira eta, horregatik, egokia iruditu zaigu gomendio orokor bat egitea. Gure ustez, bai administrazio orokorrak bai toki administrazioek ziurtatu

egin behar dute trafiko alorrean tramitatzen dituzten zehatze prozeduretan errudun jotakoaren defentsarako eskubidea errespetatzen dela, Konstituzioak eta legeek helburu horrekin ezarritako bermeak betez, hain zuzen. Alde horretatik, berebiziko garrantzia du ondoko neurriekiko begiramenak:

- Errudun jotakoaren alegazioak aintzat hartu, eta ezestekotan, erabakia arrazoitu.
- Interesatuak proposatzen dituen frogak aintzat hartu behar diren ala ez baloratu; frogak onartu ala ukatzeko erabakia adierazi egin beharko da.
- Prozeduren gaineko ebazpenak modu egokian arrazoiturik eman behar dira. Horretaz gain, ebazpenak agertu diren kontu guztien gaineko iritzia azaldu behar du, baita zehapenaren tamaina arrazoitu ere.
- Ebazpenaren aurka ezarritako helegiteak ere erabaki arrazoitua jasoko du.
- Zioen atalean, hartutako ebazpenerako arrazoi berri emango da.



El Correoren argazkia

PERTSONA EZGAITUEN LANERAKO AUKERAK EAEn

Txosten honetan ezgaituek EAEn dituzten lanerako aukerak aztertzen dira. Kalkuluen arabera, ezintasuna dutenen artean, sei urtetik gorakoak 144.000 inguru dira, hau da, biztanleen % 7,4, eta gutxi gorabehera, horien erdiek 64 urte baino gehiago dituzte; 60.000 inguru lanerako adinean daude, eta haietatik 12.000k lan egiten dute -zereginetako zentroetan dihardutenak ere kontuan harturik-, baina 7.000k baino ez dute lan egiten enpresa arrunt batean. Ezindu gehienek prestazioren bat jasotzen dute, baina 16.000 pertsonaren kasuan, laguntzak lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak dira; ondorioz, diru estuasunak besteren beharra sortzen die, batez ere familiarena, edo oso egoera kaskarrean bizi behar dute. Badaude zenbait datu nahiko

kezkarri direnak eta, Arartekoaren ustez, lehenbailehen zuzendu beharrekoak. Adibidez, ezgaituen artean jarduera tasa gainontzeko herritarrena baino askoz apalagoa da. Izan ere, lanerako adinean dauden 100 ezgaitutik 30,9 bakarrik har daitezke aktibotzat, eta biztanleria osoaren artean, aldiz, tasa hori % 53,3koa da. Gainera, kolektibo batzuk bereziki ahulak dira -emakumeak eta ezintasun psikikoa duten pertsonak, kasu-, eta bestalde, herrialde batetik bestera alde handiak daude: Gipuzkoan, esate baterako, 2000. urtean artapena eman ahal izan zitzaizen herrialde horretako ezgaituen % 18,5i, Araban % 17i eta Bizkaian % 6,3i. Bestalde, zalantzan gera liteke enplegurako zentro bereziek beren oinarritzko helburua betetzen duten edo ez, alegia, benetan enplegu

arrunterako zubia diren. Gainera, gehienetan enplegu gehiena babestua, prestakuntza maila gutxikoa edo txarto ordaindua izaten da. Beste datu kezkarri batzuk honakoak dira: gizartea ez dago kontzientziaturik, lan eta enpresa eremuetan prestakuntza gutxi dago, eta kontrolerako neurriak eta akatsak zuzentzeko mekanismoak ez dira eraginkorrak. Txostenean jasotako datuak, balorazioak eta proposamenak kontuan harturik, Arartekoak 24 gomendio luzatu dizkie alorrean ardura duten erakundeiei:

- Gurean oraindik gutxi garatuta dauden enplegu bideak -lagundutako enplegua, adibidez- arautu eta bultzatu.
- Gurean oraindik gutxi garatuta dauden enplegu bideak -lagundutako enplegua, adibidez- arautu eta bultzatu.
- Pizgarriak eman lanpostu, lantoki eta enpresetan egokitzapena eta irisgarritasuna bermatzeko.
- Gizartearen sentsibilizazioa areagotu, baita enpresari eta sindikatuari dagokienez ere.
- Berariazko politikak garatu lanean hasteko zailtasun handienak dituzten kolektiboen alde.
- Alor honetan sexuen artean dagoen aldea berdindu.
- Enplegurako zentro berezien eta zereginetako zentroen egoera berraztertu eta berriz bideratu.
- Lurraldean arteko aldeak zuzendu.
- Lan tartekaritzarako zerbitzuen eraginkortasuna handiagotu.
- Oinarritzko gizarte zerbitzuek eta elkarteek lan mundurako egiten duten zubi lana aprobetxatu.
- Koordinazioa eta elkarlana hobetu lanean sartzea bultzatzen duten gizarte eragileen artean.
- Ezintasuna dutenen prestakuntza eta trebakuntza handitu.
- Ahaleginak egin lanean hastearekin batera, ezgaituek prestazioak ere jaso ahal izan ditzaten.
- Enpleguaren kalitatea eta gerta daitezkeen bazterkeria kasuak aztertu.
- Ezgaituek enpleguaz duten informazioa hobetu.
- Laguntzak eta pizgarriak lan merkatuaren gorabeheretara egokitu.
- Mutuen parte-hartzea lortu, langileak berriro lan mundura itzuli ahal izan daitezten.
- Teknologia berriek ematen dituzten aukerak erabili.
- Programen balorazioa egin eta ezgaituak lanean hasteko neurriak betetzen diren aztertu.



El Correoren argazkia


EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ERABILERA PUBLIKOA DUTEN ERAIKINEN IRISGARRITASUNA

Txosten horretan Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek irisgarritasunaren alorrean egin duten lana aztertzen da, eta ikertutako denbora tartera 1997ko abenduaren 4ko legea –irisgarritasuna bultzatzeko- indarrean hasiz geroztik honakoa da. Udalen, foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren ekimenak aztertu dira, eta egindako aurrerapausoekin batera, oraindik hartzeko dauden neurriak ere jarri dira agerian. Bi kontzeptu agertzen dira nabarmen, haien bitartez irisgarritasunaren gaia berdintasunarekiko errespetuaren alderdi gisa azaleratzen baitzaigu: batetik, orotarako diseinua (irisgarritasuna onuragarria da gizarte osoarentzat), eta bestetik ibilbide irisgarriak (eraikinen guneetarako irisgarritasunak lotura estua du beste gune batzuetarako irisgarritasunarekin: hirigunea, garraio bideak eta komunikabideak). Ondorio gisa, esan beharra dago EAEko legeak eta araudiek ia zera bermatzailea eta babeslea dutela, eta berez,

nahikoa izan beharko luketela. Oinarrizko tresna gisa, legeak irisgarritasuna bultzatu behar duen lau urteko plana sortu du. Programak ondoko eginbeharrak ezartzen dizkie administrazio eta erakunde publiko guztiei: egoera aztertu eta, inbentario batean, egokitu behar diren kanpoaldeko guneak, eraikinak, garraio bideak eta komunikabideak bildu; lehentasunak zehaztu, irizpidetzat eraginkortasun eta jende emana handiena hartuz; programa ekonomiko eta finantzarioarekin batera, egokitzapenak burutzeko egutegia osatu. Zazpi udalek baino ez zituzten bete lege agindu horiek: Amurrio, Azpeitia, Eskoriatza, Getaria, Gueñes, Orio eta Urretxuk, baina egia da, halaber, administrazio eta erakunde publiko asko lanean ari direla bere ardurako guneetan irisgarritasuna bultzatu eta ziurtatzeko. Udal eraikinei dagokionez, irisgarritasuna oso eskasa da oraindik, eta foru diputazioen zerbitzu publikoko eraikinetan zertxobait hobea bada ere, kultur, kirol eta

gazteentzako zentroetan, aldiz, egoera askoz kaskarragoa da. Administrazio autonomoaren egoitzen kasuan, Lakuan zentralizatutako zerbitzuetako ezaugarriak udal eta foru egoitzetakoak baino askoz egokiagoak dira. Nolanahi ere, administrazio autonomikoan bertan alde nabarmena dago lurraldeen artean, eta hari horretatik, egoerarik okerrera. Azkenik, arloka aztertuta, ezaugarriak eskasena hezkuntza eta osasun alorretan antzematen dira, eta alde horretatik, egoera txarra Gipuzkoako Ospitale-guneko da. Aurreko guztia ikusirik, Arartekoak 16 gomendio egin ditu. Hona hemen azpimarragarrienak:

- Alor honetan, administrazio publikoen jarduerak orotarako diseinua izan behar du gidari.
- Bultzatu egin behar da ezgaituen elkarrean lana, ekimenak planifikatzen direnetik bertatik.
- Bitartekoak jarri behar dira ingurune fisikoaren diseinuan eta eraikuntzan esku hartzen duten teknikariek behar besteko informazioa izan dezaten arlo honi dagokionez, ezintasunen eta irisgarritasunerako neurrien inguruan, alegia.
- Irisgarritasunerako lau urteko plana oraindik osatu gabe duten administrazio publikoek lehenbailehen ekin beharko diote plana taxutzeari.
- Foru aldundiei dagokionez, lehentasuna eman behar diete, luzamendurik gabe, ezgaituentzako zentroetan egin beharreko lanei.
- Eusko Jaurlaritzak, lehen-lehenik, bere jabetzakoak diren hezkuntza eta osasun alorreko zentroetako egokitzapenei ekin behar die, eta kontuan izango du Donostiako Ospitale-guneko egoera berezia.
- Lau urteko planak betetzen diren begiratu da.
- Sustapen neurriak hartuko dira, ezarritako helburuak bete daitezzen eta, oro har, irisgarritasuna bultzatu dadin.
- Udalek beren ikuskaritza zerbitzuak sendotu behar dituzte, eta aldundiek udal txikiak elkarlana indartuko dute.
- Irisgarritasuna bultzatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeari dagokionez, haren zehatze-araubidea argitu beharra dago.



Deiaren argazkia

ARGITALPENAK

■ Eusko Legebiltzarrarentzako Txostena: Arartekoak aurreko urtean egindako lana biltzen du.





■ Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn (ezohiko txostena): txosten horretan gure Erkidegoan bizi eta ezgaitasunen bat duten 60.000 lagun ingururen lan egoera aztertzen da; guztiak dira ahultasun handiko egoeran dauden pertsonak. Bildutako datuak, balorazioak eta proposamenak kontuan harturik, Arartekoak 24 gomendio egiten dizkie alorrean ardura duten administrazioei.

■ Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna (ezohiko txostena): aztertzen da zein ekimen burutu diren alor publikoan irisgarritasuna bultzatzeko legea (1997ko abenduaren 4koa) indarrean hasi zenetik. Horretarako, udalek, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak egindako lana aztertzean, lorpenekin batera oraindik dauden hutsuneak ere jartzen dira agerian.

■ Trabajo y ciudadanía. Un debate abierto. Gizarte bazterketari buruzko lana da, Gorka Morenok Arartekoaren beka batekin egin. Helburu nagusitzat, liburuan lanaren kontzeptuak modernitatean izandako bilakaera eta herritartasunarekin duen lotura aztertzen dira, eta ezbaian jartzen da soldatapeko lana gaur egungo gizarte-kontratuaren ardatza denik.

■ La prevención y erradicación de la tortura y malos tratos en los sistemas democráticos. Arartekoak eta bestek antolatutako Jardunaldiko txostenak eta hitzaldiak biltzen ditu. Jardunaldia, liburuaren izen berekoa, uztailean egin zen, XXII. Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroetan.

■ Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna dela eta, urtero Arartekoak kartel bat argitaratzen du abenduaren 10ean, egoera ahulenean daudenen beharrak gogorarazteko eta gizarteak -gero eta sensibilizatuagoa- era eraginkorrean parte har dezan giza eskubideen defentsan eta babesean. Horretaz gain, haurren 10 oinarriko eskubideak biltzen dituzten egutegiak plazaratu ditu. Material horiek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan banatu dira.



JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK

■ Urtarrilean Mertxe Agúndez jarduneko arartekoak eta José Chamizo Andaluziako herriaren defendatzaileak lankidetzarako eta elkarlanerako hitzarmen bat sinatu zuten. Akordio horren arabera, Arartekoak dohain laga dio Andaluziako Herriaren Defendatzaileari “Nuestros Derechos/Gure Eskubideak” material didaktikoak erabili, argitaratu eta erreproduzitzeko eskubidea. Helburua materialak argitaratzea eta erreproduzitzea zen, haien bitartez Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena zabaltzeko eta bultzatzeko. Ondoren, beste hitzarmen bat sinatu zen M^a Jesús Aranda Nafarroako arartekoarekin, material berberak erabil zitezten.

■ Jarduneko Arartekoa Valentziara joan zen, han egin baitzen IV. Europako Batasuneko Eskualdeetako Ombudsmanen Batzarra. Bertan, inmigrazioa eta ingurumenaren babesa jorratu ziren.

■ Urrian Madrilera joan zen, Herriaren Defendatzaileei eta Konstituzio Eskubideei buruzko Jardunaldietara.

■ Mertxe Agúndez Euskadi eta Nafarroako Psikiatria Elkarteak Iruñean egindako II. Batzarrean egin zen; gaia “Familia eta Psikiatria” izan zen. Nafarroako Arartekoarekin eta AVIFESko ordezkariarekin batera, Arartekoak parte hartu zuen bertako mahainguru batean (“Familia eta buru gaixotasuna”).

■ Urrian Arartekoak parte hartu zuen Irungo Udalak eta Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoak ezgaitasunaren inguruan antolatutako Jardunaldietan (“Oztopoez gaindi”). Bertan, Arartekoak bere erakundeak

2003an gaiari buruz osatu zituen bi txosten monografikoez hitz egin zuen.

■ Mertxe Agúndez Toledon eta Albaceten ere egin zen, Herrien Defendatzaileek han antolatu baitzituzten XVIII. Koordinazio Jardunaldiak. Bere txostenean (“Baliabideak eta zerbitzuak haur eta gazteen buru osasunaren alorrean eta psikogeriatrian”), buru gaixoei ahalik eta artapen onena jasotzeko eskubidea aztertu zuen Arartekoak, eta horren haritik azaldu zuen zertan aldatu den gure erkidegoan buru gaixotasuneko arazoei ematen zaien artapena, baita hobetu behar diren zenbait arazo eta alderdiren berri eman ere. Horren aurretik ezintasuna duten pertsonen buruzko tailer bat antolatu zen Arartekoaren egoitzan, Gasteizen.

■ Arartekoak, EHUren Udako Ikastaroekin batera, jardunaldi bat antolatu zuen (“Tortura eta tratatu txarrak prebenitu eta desagerraraztea sistema demokratikoetan”), eta bertan esperientzia handiko adituak aritu ziren.

■ Mertxe Agúndez arartekoak Theo Van Boven jauna hartu zuen erakundearen egoitzan joan den urrian. Torturarekin zerikusia duten gaietarako kontalari berezia da Van Boven, eta bileraren helburua kontalariak informazioa lortzea zen, Nazio Batuen Gizarte Eskubideetako Batzordeari aurkeztuko dion txostena paratzeko.

■ Azaroan Arartekoa Panaman izan zen, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioak egindako VIII. Biltzarrean. Ekitaldiek “Demokrazia eta Giza Eskubideak” izan zuten lema nagusi.

IKERKETA BEKAK

■ Aurten Gorka Morenok bere ikerketa lana bukatu du, eta duen interesagatik, Arartekoak Giza Eskubideen inguruan daukan bilduman (“P. Francisco de Vitoria”) argitaratu du aipatutako lana.

■ Beatriz Sicilia Oña eta Ainara Marín bekadunak beren lanetako ondorioztatze-aldia taxutzen ari dira. Lanak ondokoak dira: “Oinarrizko eskubideak EBko Konstituzio egitasmoan” eta “Etsaigotik abegirako tartea; elkartu nahia”.

■ Aurreko urteetako beketako ikerlanek aurrera jarraitu dute. Haietako batek ondokoa zuen aztergai: “EAEko gutxiengo magrebtarrak: beren kultur, erlijio eta hizkuntzari eusteko eskubideak gaur egun”. Beste lan bateko gaia “Zainketa aringarriak” da.

■ Ikerketa aplikaturako beka bat eman zaio Jesús Septién Ortizi. Lanean honako gaia jorratuko du: “Ikasle etorkinen integrazioa Euskadiko hezkuntza sisteman: hezkuntzarako eskubidea ahultasun handiko kolektibo batean”.

■ 2003-2004ko ikerketarako beka Aiala Olarte Hurtadori eman zaio.



EZGAITASUNARI BURUZKO WEBGUNEA

Arazo larrienak dituztenen beharrak jendearengana zabaltzeko asmoz, eta gizarteak ere modu eraginkorrean barneratu dezan giza eskubideen defentsa eta babeserako ardura, Arartekoak ezgaitasunari buruzko atal bat txertatu du bere web orrian (www.ararteko.net); honekin batera, 2003an beste ekimen batzuk ere antolatu ziren, ordukoa aukeratu baitzen Europako ezgaituen urtetzat. Besteak beste, lehen esandako ezohiko txostenak argitaratu ziren eta jardunaldietan parte hartu zen; horretaz gain, zenbait ofiziozko jarduketari ekin zitzaizkien gure Autonomia Erkidegoko administrazioen aurrean, ezgaitasuna dutenen eskubideak bermatzeko eta haien bizi kalitatea hobetzeko.

Ildo beretik hitzaldi bat antolatu zen (“Emakumeak eta ezgaitasuna: bi aldiz baztertuak”); hizlaria, Pilar Ramiro, arduraduna da PREDIF Konfederazioko prestakuntza, enplegu eta feminismoaren inguruko alorretan; horretaz gain, Madrilgo Erkidegoko Emakumeen Batzordeburua da.

Ezgaitasunen nazioarteko eguna den abenduaren 3an, Bizkaiko Ezgaitasun Fisikodunen Federazio Koordinatzaileak

Irisgarritasuna 2003 saria eman zion Mertxe Agúndez Basterra jarduneko arartekoari. Federazioak aintzat hartu zuen Arartekoak minusbaliatuen eskubideen alde egiten duen defentsa, eta zehazki, erakundeak argitaratutako ezohiko txostena: Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna.



IKASLEEN BISITAK

Aurreko urteetan bezala, Arartekoak parte hartu du Gasteizko Udalaren Hezkuntza Sailak antolatzen duen Gasteiztxo Albistegia

ekimenean: ikastetxeetako ikasleak bisitan etorri zaizkigu, eta kazetari lana eginez, erakundearen jarduerari buruzko datuak eta

informazioak bildu dituzte, ondoren haiekin irriti edo telebista saio bat edo egunkari bat osatzeko asmoz.



ESKOLETAKO LANEN LEHIAKETA

Aurreko aldiz, Arartekoak eskola-lanen lehiaketa bat paratu du giza eskubideen edo haurren eskubideen inguruan. Lehiaketarako oinarriak Euskal Autonomia Erkidegoko eskola guztietara igorri dira, eta ikusgai daude erakundearen web orrian: www.ararteko.net